

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2006-11-29**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**29-11-2006**

**Organoa edo Batzordea:** Osoko Bilkura.  
**Bilera-mota:** ohikoa.  
**Eguna:** 2006-11-29 (asteazkena).  
**Ordua:** Hasiera: 19:30 eta bukaera: 20:33  
**Tokia:** Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

**Bertaratuak:**

Juan Ramon Larrañaga Mercero, alkatea.  
Jose Luis Herranz Gutierrez, EAko zinegotzia.  
M. Aranzazu Arizmendi Gereñu, EAko zinegotzia.  
Jose Luis Cid Delgado, EAko zinegotzia.  
Vicente Garmendia Martinez, EAko zinegotzia.  
Jose Luis Zabaleta Idigoras, EJko zinegotzia.  
Iñaki Mendia Izagirre, atxiki gabeko zinegotzia.  
Francisco Javier Iraeta Alvarez, EJko zinegotzia.  
M. Gloria Mtnez de Guereñu Fdez de Ocariz, EJko zinegotzia.  
Francisco Ramos Rehecho, Talde Mistoko zinegotzia.  
M<sup>a</sup> Isabel Ugarte Fernandez, PPko zinegotzia.  
Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.  
Jon Mikel Garagarza Roteta, idazkaria.

**Bertaratu ez direnak:**

Oscar Jose L. Murillo Perez, PSEko zinegotzia.  
Gerardo Anton Martin, EBko zinegotzia.

**Aztergaiak:**

- 1.- Bidezkoa bada, joan den 2006-10-25eko bilkurari dagokion akta onartzea.
- 2.- Bidezkoa bada, udalerriko kale eta auzoen izendatze berria onartzea.
- 3.- Bidezkoa bada, plan orokorrean herritarrek parte har dezaten osatu den programa onartzea.
- 4.- Bidezkoa bada, Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudia behin betiko onartzea.
- 5.- Bidezkoa bada, Plan Orokorra onartzea.
- 6.- Bidezkoa bada, Legazpiko Udalaren 2007rako Aurrekontu Orokorra onartzea.
- 7.- Debateak zuzentzea eta bideratzea.
- 8.-Luzatu diren dekretuen berri ematea.
- 9.- Eskariak eta galderak.

**Organo o Comisión:** Pleno.

**Tipo de Convocatoria:** ordinaria.

**Día:** 29-11-2006 (miércoles).

**Hora:** Comienzo: 19:30 y final: 20:33

**Lugar:** Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

**Asistentes:**

Juan Ramón Larrañaga Mercero, alcalde.  
José Luis Herranz Gutiérrez, concejal de EA.  
M. Aranzazu Arizmendi Gereñu, concejal de EA.  
Jose Luis Cid Delgado, concejal de EA.  
Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA.  
José Luis Zabaleta Idigoras, concejal de NV.  
Iñaki Mendia Izagirre, concejal no adscrito.  
Francisco Javier Iraeta Alvarez, concejal de NV.  
M. Gloria Mtnez de Guereñu Fdez de Ocariz, concejal de NV.  
Francisco Ramos Rehecho, concejal del Grupo Mixto.  
M<sup>a</sup> Isabel Ugarte Fernández, concejal de PP.  
Fernando Arakama Fernández, interventor.  
Jon Mikel Garagarza Roteta, secretario.

**Personas que no han acudido a la reunión:**

Oscar Jose L. Murillo Perez, concejal de PSE.  
Gerardo Anton Martin, concejal de IU.

**Orden del Día:**

- 1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 25-10-2006.
- 2.- Aprobación, si procede, de la nueva denominación de calles y barrios del municipio.
- 3.- Aprobación, si procede, del programa de participación ciudadana en el plan general.
- 4.- Aprobación definitiva, si procede, del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.
- 5.- Aprobación inicial, si procede, del Plan General.
- 6.- Aprobación, si procede, de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Legazpi para el 2007.
- 7.- Dirección y moderación de los debates.
- 8.- Dar cuenta de los decretos dictados.
- 9.- Ruegos y preguntas.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2006-11-29**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**29-11-2006**

**Esan-eginak eta erabakiak:**

**1.- Bidezkoa bada, joan den 2006-10-25eko bilkurari dagokion akta onartzea.**

Batzordekideek aho batez onartu dute joan den 2006ko urriaren 25ean egindako bilkurari dagokion akta.

**2.- Bidezkoa bada, udalerriko kale eta auzoen izendatze berria onartzea.**

Herritarrentzako Arreta Bulegoan herritarrek herriko kaleak hala nola eta modu diferentean erabiltzen dituztela ikusi da eta beraz, kale-izendegia bateratu beharra dagoela antzeman da. Hori dela eta, euskara arloan ere aldaketak eman dira eta Plan Orokor berria bideratzen ari denez, kaleen izenak bateratzea proposatu da. Modu berean esan beharra dago 2007. urterako aurrekontuaren proiektuan kaleen izenak adieraziko dituzten seinaleak jartzea aurreikusitako dela.

Hainbat prozedura burutu ondoren eta Euskaltzaindian kontsulta egin eta gero, Alkate-Lehendakariak batzordekideei irakurri dien zerrenda prestatu da.

Hirigintza Batzordeak ondoko irizpena eman du gai horri buruz:

Legazpiko udalerriko kaleen eta auzoen izen berriak onartzea.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren aho batez onartu da.

**3.- Bidezkoa bada, plan orokorrean herritarrek parte har dezaten osatu den programa onartzea.**

Segidan, Alkate-Lehendakariak hartu du hitza eta Plan Orokorra egiteko oinarritzat hartu dugun euskal Lurzoruaren Lege berrian hainbat berrikuntza aurreikusi direla adierazi du; horien artean herritarren parte-hartzea dago. Horretarako, Udalek herritarrek parte har dezaten programa bat osatu behar dute eta dokumentu hori, berez, plangintza-aurrerakinarekin onartu behar zen. Dena den, aurrerakina onartu genuenean aipatu Lege hori ez zen indarraldian. Horrela, Eusko

**Temas debatidos y acuerdos adoptados:**

**1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 25-10-2006.**

Por unanimidad de los presentes se acuerda aprobar el acta de la sesión celebrada el día 25 de octubre de 2006.

**2.- Aprobación, si procede, de la nueva denominación de calles y barrios del municipio.**

El Alcalde-Presidente manifiesta que el tema surge como consecuencia de que en el Servicio de Atención al Ciudadano se ha constatado que la ciudadanía emplea indistintamente el nombre de las calles del pueblo. Al hilo de esto, decir que se han dado cambios en materia de euskera, y aprovechando que se está tramitando el nuevo Plan General, se ve la conveniencia de homologar el nombre de las calles. También señalar que en el proyecto de presupuesto para el año 2007 existe una previsión para señalización de calles.

Tras diversos procedimientos y consultar con Euskaltzaindia, se ha elaborado un listado que el Sr. Alcalde-Presidente procede a leer.

El dictamen de la Comisión de Urbanismo es el siguiente:

Aprobar la nueva denominación de calles y barrios del municipio de Legazpi.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad.

**3.- Aprobación, si procede, del programa de participación ciudadana en el plan general.**

Toma la palabra el Alcalde-Presidente. Comienza exponiendo que la nueva Ley del Suelo vasca a la que hemos decidido ajustarnos para elaborar el Plan General, contempla varias novedades, entre ellas, la garantía de la participación ciudadana. Para ello, requiere a los Ayuntamientos que elaboren un programa de participación ciudadana, documento que en condiciones normales debería de aprobarse junto al avance, pero en el momento en que el Ayuntamiento aprobó el Avance, la citada Ley no estaba vigente. Se ha consensuado con el

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2006-11-29**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**29-11-2006**

Jaurlaritzarekin Lege berri horretara egokitzeko modua adostu dugu eta Plan Orokorra hasiera batean onartuko denean herritarrek parte hartzeko programa onartzea erabaki da.

Alkate-Lehendakariak, bestalde, orain arte herritarren parte-hartzea sustatzeko burutu diren jarduketa guztiak laburtu ditu eta ekimen horiek guztiak dokumentuan jasota geratu dira. Filosofia berberarekin jarraitzea erabaki da eta Aholku Batzordea eratu da. Bestetik, batzorde informatiboak egingo dira, liburuxkak argitaratuko dira, gai zehatzei buruzko bilerak antolatuko dira, web-orria eta herriko kronikak erabiliko dira informazioa emateko, alegazioak aurkeztuko dituen herritar bakoitzari erantzun egingo zaio, Agenda 21eko Foroan eztabaidatuko dira gaiak,.....

Honako hau da Hirigintza Batzordearen irizpena:

Legazpiko udalerrriaren Plan Orokorra berrikusiko denean herritarrek parte har dezaten programa onartzea.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

**4.- Bidezkoa bada, Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudia behin betiko onartzea.**

Alkate-Lehendakariak hartu du hitza eta Legazpiko Udal Plangintzaren Aholku Batzordearen araudia jendaurrean agerian egon den epean bi alegazio jaso direla jakinarazi du: bata, Iñaki Mendia Izagirre jaunarena eta bestea, Iñaki Sanchez Gastañares jaunarena.

Mendia jaunaren alegazioan Aholku Batzorderako aurrekusi den zinegotzi-kopurua handitzea eskatu da. Alkate-Lehendakariak Aholku batzordea organo aholku-emailea dela adierazi du; Aholku batzordeak ez ditu erabakiak hartuko eta haren funtzionamendua bizkorra izatea da helburu; gainera, Agenda 21eko Foroa ere bere horretan mantenduko da eta Foro hori irekia da bertan parte hartu nahi duen edonorentzat. Korporaziokideek aukera izan dute hirigintzako batzorde guztietan eta gaiari buruz egin diren bilera zehatz guztietan parte hartzeko; horrezaz gain, zinegotziek Osoko

Gobierno Vasco la manera de ajustarnos a la nueva Ley y se ha juzgado conveniente aprobar el programa de participación ciudadana en el momento de aprobar inicialmente el Plan General.

El Alcalde-Presidente hace un resumen de todas las actuaciones en materia de participación ciudadana llevada a cabo hasta la fecha, actuaciones que por otra parte, se recogen en el documento. Se plantea seguir con la misma filosofía, constituyéndose el Consejo Asesor, sesiones informativas, folletos divulgativos, sesiones específicas, página web y crónicas locales, compromiso explícito de remitir una respuesta individualizada a cada ciudadano que formule alguna alegación, Foro de Agenda 21,...

El dictamen de la Comisión de Urbanismo es el siguiente:

Aprobar el programa de participación ciudadana en la revisión del Plan General del Planeamiento del municipio de Legazpi.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad.

**4.- Aprobación definitiva, si procede, del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.**

Toma la palabra el Sr. Alcalde-Presidente para comenzar diciendo que durante el plazo de exposición pública del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal de Legazpi, se han recogido dos alegaciones: una del Señor Iñaki Mendia Izagirre y otra del Señor Iñaki Sánchez Gastañares.

En la alegación del Sr. Mendia se pretende aumentar el número de concejales en el Consejo Asesor. El Sr. Alcalde-Presidente sostiene que el Consejo Asesor se trata de un órgano consultivo, no decisorio, que se pretende sea ágil, añade que también se va a mantener el Foro de Agenda 21 abierto a toda la ciudadanía, y que los representantes políticos de la Corporación, además de haber tenido la oportunidad de participar en todas las comisiones de urbanismo y reuniones

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2006-11-29**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**29-11-2006**

Bilkurako kide diren aldetik erabakitze eskumena dute eta Osoko Bilkuran onartuko da behin betiko Plan Orokorra. Beraz, guzti hori kontutan hartuz, Plan Orokorren Aholku batzordeko kideak aldatzea ez dela komenigarria adierazi du Alkate jaunak.

Mendia jaunaren alegazioaren bigarren zatiari dagokionez, Alkate-Lehendakaria bat dator alegazio-egilearekin eta araudiaren idazkerak gaizki-ulertuak sor ditzakeela dioenarekin; ondorioz, aldatzea proposatzen da eta horrela azalduko da Hirigintza Batzordeak eman duen irizpenean.

Sanchez Gastañares jaunak Aholku Batzordeko idazkariari buruz aurkeztu du alegazioa eta egungo idazkera modu desberdinean uler daitekeela dio. Ondorioz, Hirigintza Batzordeak beste modu batera esatea erabaki du.

Honako hau da Hirigintza Batzordearen irizpena:

1.- Iñaki Mendia Izagirre jaunak aurkeztu duen alegazioa ikusi eta gero, testua aldatzea eta ondoren adieraziko den eran jartzea proposatu da:

“Udal Plangintzako Aholku Batzordeko kideak Alkate-Lehendakariak emango duen Dekretuaren bidez izendatuko dira. c), d) eta e) ataletan zehaztutako kideei dagokienez, inplikaturako elkarteei eta erakundeei entzun eta gero izendatuko dira.”

2.- Iñaki Sanchez Gastañares jaunak aurkeztu duen alegazioa ikusi ondoren, testua honela aldatzea proposatu da:

“Aholku Batzordeko idazkaria korporazioko idazkaria edo berak izendatuko duen ordezkaria izango da.”

3.- Aurreko bi puntutan zehaztutako zuzenketak egin ondoren, Legazpiko Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudia behin betiko onartzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

específicas que se han desarrollado, y que además, los Concejales mantienen su función decisoria como miembros del Pleno, órgano competente para aprobar definitivamente el Plan General, considerando finalmente que no es conveniente la modificación de los miembros del Consejo Asesor de Planeamiento General.

Respecto a la segunda parte de la alegación del Sr. Mendia, está de acuerdo con el alegante en que la redacción puede generar equívocos, en consecuencia propone un cambio, tal y como se verá en el dictamen emitido por la Comisión de Urbanismo.

Respecto a la alegación presentada por el Sr. Sánchez Gastañares, referida al Secretario del Consejo Asesor, señalando que la redacción actual puede ser interpretable, la Comisión de Urbanismo acordó otra enunciación.

El dictamen de la Comisión de Urbanismo es el siguiente:

1.- A la vista de la alegación presentada por Don Iñaki Mendia Izagirre, se propone la modificación del texto en este sentido:

“Los componentes del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal serán nombrados mediante Decreto por el Alcalde-Presidente. En el caso de los miembros descritos en los apartados c), d) y e) el nombramiento se efectuará una vez oídas las asociaciones y entidades implicadas”.

2.- A la vista de la alegación presentada por Don Iñaki Sánchez Gastañares, se propone la modificación del texto en este sentido:

“Será secretario del consejo asesor el secretario de la corporación o persona en quien delegue”.

3.- Aprobar definitivamente el Reglamento del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Legazpi con las correcciones apuntadas en los dos puntos anteriores, ordenando su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2006-11-29**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**29-11-2006**

Bertaratutako zinegotziek aho batez erabaki dute Hirigintza Batzordeak egin duen proposamena onartzea.

**5. Bidezkoa bada, Plan Orokorra onartzea.**

Alkate-Lehendakariak hartu du hitza eta gaia azaltzeko powerpinteko artxibategia erabili du. Bileran bertan dago, halaber, Plan Orokorra idatzi duen taldeko kide Santi Peñalba eta bertaratutako kideen zalantzak argitzeko dagoela jakinarazi da.

Plan Orokorrak indarrean dauden Arau Subsidiarioak ordeztzen ditu eta 8 urtetarako diseinatu da. Plan Orokorra Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritakora egokitu da. Modu berean, garapen iraunkorraren printzipioa betetzen da. Horrezaz gain, dagozkion antolamenduari eta urbanizazioari buruzko ordenantzak bideratuko dira. Segidan, modu laburrean adierazi du Plan Orokorren dokumentu bakoitza.

Ondoren, Plan Orokorren helburu nagusiak adierazi ditu: hiri-lurraren erabilera arrazionala, herritarren parte-hartzea eta interes orokorrari men egitea, biodibertsitatea berreskuratzea, biztanle gazteenak bertakotzea, errentaren mailak mantentzea eta handitzea, udalerriko gizarte ongizatea hobetzea, udalerrira iristeko irisgarritasun-baldintzak hobetzea,.....

Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ingurumenarekiko eraginari buruzko txostena egin du. Egingo diren etxebizitza guztiekin datorren 2015. urtean biztanleen egungo kopurua mantendu nahi da.

Segidan, landa-lurzorua, lurzoru hiritarra eta hiritartzeko gai den lurzoru nola zonakatzen diren adierazi du.

Egitea aurreikusi diren etxebizitza-kopurua 1044ra iristen da eta, aldiz, 61 etxe dira bota behar direnak. Etxe-kopuru horretatik Eusko Jaurlaritzak kudeatuko dituen babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua 336 izango da; 196 Udalaren esku-hartzearen bidez tasatutako etxebizitzak izango dira eta gainerako 512 salmenta librekoak. Guztira, 983 (babestutakoak %54) etxebizitza berri eta Eusko Jaurlaritzaren iritziz etxebizitza-kopuru hori irtenbide logikoa

Por unanimidad de los presentes se acuerda aprobar la propuesta remitida por la Comisión de Urbanismo.

**5.- Aprobación inicial, si procede, del Plan General.**

Comienza la exposición del tema el Sr. Alcalde-Presidente, facilitándose la misma a través de un archivo powerpoint. También está presente el miembro del equipo redactor Santi Peñalba, señalando que está a disposición de los presentes para aclarar todo tipo de cuestiones.

El Plan General viene a sustituir a las Normas Subsidiarias en vigor, diseñándose para un horizonte temporal de 8 años. El documento se adecúa a la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo. Se cumple con el principio de desarrollo sostenible. Independientemente, se tramitarán las ordenanzas de ordenación y urbanización oportunas. A continuación, expone sucintamente cada documento del Plan General.

Posteriormente, enumera los objetivos generales del Plan General: uso racional del medio urbano, participación ciudadana y sometimiento al interés general, recuperación de la biodiversidad, fijar a la población residente joven, mantener y aumentar los niveles de renta, mejorar el bienestar social del municipio, mejorar las condiciones de accesibilidad al territorio municipal,...

Por otra parte, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha formulado el informe de impacto medioambiental. Con todas las viviendas que se van a hacer se pretende mantener el número de habitantes para el año 2015.

A continuación explica la zonificación del suelo rural, el suelo urbano y el urbanizable.

El número de viviendas que se proyectan es de 1044, y hay que derribar un total de 61. El número de viviendas de protección oficial gestionadas por el Gobierno Vasco será de 336, las viviendas tasadas reguladas por vía municipal serán 196 y las libres 512. En total, 983 (54% protegidas) viviendas nuevas, el Gobierno Vasco en principio ve una solución

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2006-11-29**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**29-11-2006**

eta arrazoizkoa da. Lege berrian finkatutako estandarrak betetzen dira.

Egun dauden lantegiak finkatuta geratzen dira, Zaldu barne eta, horiez gain, Lekuona-Azkuenea eta Elbarrena eremuak garatuko dira eta gure eskualdeko garapen ekonomikoaren ardatz bihurtuko dira.

Paper-fabrikaren ingururako bizitegitarako jarduketa garrantzitsua aurreikusi da eta bertan kokatuko da lanaren memoriari dedikatutako museoa. Espazio librean sistema orokorretarako ezarritako estandarrak gainditu egiten dira, bikoitzetik gora.

Planaren ikuspegi ekonomikoari dagokionez, sistema orokorrak burutzeko 6.500.000 € aurreikusi dira.

Peñalba jaunak hartu du hitza eta plana idatzi duen taldeko kide den aldetik Alkate-Lehendakariak egin duen azalpena osatu du.

Honako hau da Hirigintza Batzordeak eman duen irizpena:

1.- Legazpiko Udal Plangintzako Plan Orokorraren dokumentua hasiera batean onartzea.

2.- Iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta zabaldunde handiko egunkarian argitaratuz aipatu dokumentua jendaurrean agerian jartzea eta iragarkia argitaratuko den biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epea ematea interesa dutenek egoki iritziko dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

3.- Hasierako onarpenaren berri arlo horretan eskumenak dituzten herri-administrazioei ematea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion txostenak egin ditzaten.

4.- Plana hasiera batean onartzeak zera esan nahiko du: beste urtebetez luzagarria izango den urtebeteko epean ezingo dela ezer onartu eta ezingo direla baimenak eta lizentziak eman aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea suposatuko duten eremuetan.

lógica y razonable. Se cumplen los estándares fijados por la nueva Ley.

Se consolidan las fábricas actuales, incluida Zaldu, y además se desarrollarán Lekuona-Azkuenea y Elbarrena, constituyéndose en polo de desarrollo económico de nuestra comarca.

En el entorno de la papelera hay una importante actuación residencial y se ubicará el museo de la memoria del trabajo. Los estándares para el sistema general de espacios libres se superan con creces, más del doble.

En cuanto a la vertiente económica del plan, se prevé un coste de 6.500.000 € para ejecutar los sistemas generales,...

Toma la palabra el Sr. Peñalba, miembro del equipo redactor para completar la exposición realizada por el Alcalde-Presidente.

El dictamen realizado por la Comisión de Urbanismo es el siguiente:

1.- Aprobar inicialmente el documento del Plan General del Planeamiento Municipal de Legazpi.

2.- Someter el referido documento a exposición pública mediante la publicación de sendos anuncios en el BOG y en uno de los diarios de mayor tirada, concediéndose un plazo de 1 mes a partir del día siguiente de la fecha de publicación en el BOG para que cualquier persona interesada pueda presentar las alegaciones que tenga por oportunas.

3.- Notificar la aprobación inicial, para su conocimiento e informe, a las administraciones públicas con competencias sectoriales.

4.- El acuerdo de aprobación inicial determinará la suspensión, por el plazo de un año, prorrogable a otro más, del otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en los ámbitos en la que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2006-11-29**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**29-11-2006**

Bertaratutakoek aho batez onartu dute Hirigintza Batzordeak aurkeztu duen irizpena.

**6.- Bidezkoa bada, Legazpiko Udalaren 2007rako Aurrekontu Orokorra onartzea.**

Ogasun saileko zinegotzi-ordezkariek hartu du hitza eta powerpointeko fitxategia erabili du bere azalpena egiteko. Orain dela hiru urte hasi zen bide beretik, aurten ere gastua programatan biltzen da. Finantzaketa zorpetzera jo gabe burutzen da eta, beraz, zehatza izan beharra dago inbertsioak finkatzeko.

Inbertsioetarako eta gastuetarako 8.745.469,85 € aurrekusi dira. Segidan, sarrerak eta gastuak zehatz-mehatz adierazi ditu.

Mendia jaunak hartu du hitza eta botazioan abstenitu egingo dela adierazi du. Aurrekontua udal bilakabidearen bizkarrezurra dela dio eta Legazpiko udalerrak dituen arazo sozio-ekonomikoak ikusita, gure herria ezin dugula ezinbesteko erreminta hori gabe utzi uste du. Dena dela, aurrekontu horiek diru-xahuketan oinarritzen dira.

Lehenbizi, beharrezko ez diren eta oso garestiak diren kanpoko aholkularitzak kontratatzea salatzen du. Horrela dago kontratatuta Ekain aholkularitza juridikoa eta hori ez dela beharrezko uste du udaletxean badaudelako aholkulari juridikoak.

Kale-garbiketara eskaintzen duen enpresa esleipendunari dagokionez, BEZa aplikatzerakoan ezohiko joko bat egin duela eta, ondorioz, aparteko diru-sarrerak eskuratu dituela salatzen du.

Modu berean, dirua xahutzea da hauteskundeetara batera joan zirenen bi alderdi politikori asignazio osoa eskaintzea. Era berean, berriro salatzen du aurrekontu horiek berarekiko azaltzen duten bereizkeria, bertan ez direlako zinegotzi izateagatik dagozkion asignazioak aurreikusten; beraz, gai horri buruz aurkeztu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoak berari arrazoia ematea espero duela esan du.

Por unanimidad de los presentes se aprueba el dictamen presentado por la Comisión de Urbanismo

**6.- Aprobación, si procede, de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Legazpi para el 2007.**

Toma la palabra el Concejal Delegado de Hacienda, ayudándose de una presentación powerpoint. Como hace tres años, se sigue agrupando el gasto por programas. La financiación se produce sin acudir al endeudamiento, requiriéndose una especial minuciosidad para determinar las inversiones.

Hay una previsión de ingresos y gastos de 8.745.469,85 euros. A continuación procede a dar una explicación más detallada de los ingresos y gastos.

Toma palabra el Sr. Mendia para manifestar que se abstendrá en la votación. El presupuesto es la espina dorsal del devenir municipal, y dados los problemas socio-económicos que acucian al pueblo de Legazpi, no nos podemos permitir el lujo de dejarlo sin una de las herramientas más importantes que disponemos. Estos presupuestos siguen sustentándose en el despilfarro.

En primer lugar denuncia la contratación de asesorías externas innecesarias y carísimas, por ejemplo, la asesoría jurídica Ekain, dado que en el Ayuntamiento ya se dispone de los asesores jurídicos oportunos.

En el de la limpieza viaria, se ha permitido que la empresa adjudicataria, en un juego anormal en la aplicación del IVA, consiga unos ingresos extraordinarios sobre la base del servicio que realmente presta.

También, supone un despilfarro abonar dos asignaciones completas a dos grupos políticos que en las elecciones concurren juntos. Al mismo tiempo quiere volver a denunciar la discriminación que estos presupuestos suponen para él como Concejal, ya que se le niegan las asignaciones que le corresponden, por eso espera que el recurso contencioso administrativo que ha presentado le de la razón.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2006-11-29**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**29-11-2006**

Aurrekontu horiek kudeaketa politiko xahutzailea proiektatzen dute eta ez dituzte indarrean dauden legezko xedapenek eskatzen dituzten aginduak betetzen; beraz, onartu ezin diren aurrekontuak dira.

Ogasun saileko irizpenak honela dio:

Lehenengoa.- 2007. urterako Legazpiko Udaleko Aurrekontu Orokorren proiektua onartzea. Ondoko aurrekontu hauek osatzen dute Aurrekontu Orokor hori: udaletxeko Aurrekontua, Kiroletako udal Patronatuko aurrekontua, Udal Euskalategi Publikoaren Fundazioaren aurrekontua eta Herrigintza SA Sozietate Publikoaren aurrekontua. Guztira, 9.676.362,09 €.

Bigarrena.- Erabakiaren berri Udaleko Osoko Bilkurari ematea bidera dezan.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aldeko 9 boto eta Mendia jaunaren eta Ugarte andrearen abstentzioak zenbatu dira.

#### **7.- Debateak zuzentzea eta bideratzea.**

Alkate-Lehendakariak hartu du hitza eta eguneko aztergai hau Mendia jaunak joan den irailaren 27ko Osoko Bilkuran esan zuenaren ondorioz sartu dela gai-zerrendan argitu du. Segidan, Alkateak Mendia jaunak aipatu bilkuran irakurri zuen diskurtsoari erantzun egin dio.

Mendia jaunak bilkura hartan irakurri zuen diskurtsoan apirilaren 22ko 'Diario Vasco' egunkariko herri-kronikaren egiletzat jo zuen Alkatea eta baita, herriko etxeetan banatutako Eusko Alkartasunaren herri-exekutibaren idatziarena ere.

Modu berean, Alkateak hainbat gairi eman dio erantzuna: udal idazkariaren espedienezkeria zerikusi duen gaia, aurreko korporaziokideekin zuen harremana, udal-kudeaketa, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Kontu-Epaitegiari egindako auditorien eskaria eta insumisioa. Bukatzeko, eta iazko irailean udal idazkariak egin zuen txostenean oinarrituta, falta diren Osoko Bilkuretan Alkate jaunak debateak zuzentzeko eta bideratzeko duen obligazioa

Son unos presupuestos que proyectan una gestión política despilfarradora y que incumplen preceptos que exigen las disposiciones legales vigentes, por lo tanto, de ninguna manera pueden ser apoyados.

El dictamen de la Comisión de Hacienda señala lo siguiente:

Primero.- Aprobar el Proyecto de Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Legazpi para el 2007, integrado por el Presupuesto Propio, el Presupuesto del Patronato Municipal de Deportes, el Presupuesto de la Fundación Pública Euskalategi Municipal y el Presupuesto de la Sociedad Pública Herrigintza, SA, cuyo importe consolidado se eleva a la cantidad 9.676.362,09 €.

Segundo.- Dar traslado del presente acuerdo al Pleno del Ayuntamiento para su tramitación.

Realizada la votación, se contabilizan 9 votos a favor y las abstenciones del Sr. Mendia y la Sra. Ugarte.

#### **7.- Dirección y moderación de los debates.**

Toma la palabra el Sr. Alcalde-Presidente para señalar que este punto del orden del día viene motivado por lo manifestado por el Sr. Mendía, en el Pleno del día 27 de Septiembre. A continuación, procede a dar respuesta al discurso que leyó el Sr. Mendia en la citada sesión.

A modo de resumen señalar que hace referencia a la autoría tanto de la crónica local del Diario Vasco del 22 de Abril, como al escrito buzoneado, por la ejecutiva local de Eusko Alkartasuna.

Asimismo, respondió a lo relacionado con el expediente del Secretario municipal, la relación con anteriores corporativos, la gestión municipal, la solicitud de auditorias realizada al Tribunal de Cuentas por las Juntas Generales de Gipuzkoa y la insumisión concluyendo que en base al informe elaborado por el secretario municipal en septiembre del año pasado, en los plenos que restan, el Sr. Alcalde va a extremar su obligación de dirigir y moderar los debates.



<b>UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA</b>  <b>2006-11-29</b>	 <b>LEGAZPIKO UDALA</b>	<b>ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL</b>  <b>29-11-2006</b>
---	---	--

azkeneraino eramango duela adierazi du.

Mendia jaunak idatzia pasatzea eskatu du.

**8.-Luzatu diren dekretuen berri ematea.**

Alkate-Lehendakariak luzatu diren dekretu guztien zerrendaren berri eman du.

**9.- Eskariak eta galderak.**

Ez da egon.

Alkateak, arratsaldeko zortzirik eta hogeita hamairu minutu direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezzen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

El Sr. Mendia solicita que se le pase la lectura.

**8.- Dar cuenta de los decretos dictados.**

El Sr. Alcalde-Presidente se remite al listado que contiene la relación de todos los decretos.

**9.- Ruegos y preguntas.**

No hay ruegos ni preguntas.

El alcalde levanta la sesión, siendo las veinte horas y treinta y tres minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

<p>Akta hau 2006 -12 -27 (e)an egindako bileran onartu zen:</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día 27 -12 - 2006 :</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p>Jon Mikel Garagarza Roteta Idazkaria</p>	<p>Juan Ramon Larrañaga Mercero Alkatea</p>